

11. artikulua.– Hizkuntzen trataera integratua eta integrala.

1.– Hezkuntza-eskumenak dituen sailak hizkuntzen trataera integratua eta integrala sustatuko du.

Horrek arreta berezia ematen dio ikasketak hainbat hizkuntzatan emateari, komunikatzeko kompetentzia eleaniztun bat lortzeko asmoz. Hizkuntza bakoitzak berezkoa duena lantzea eta denek berdina dutena partekatzea da, betiere, ikasleak modu egokian eta eraginkorrean erabiltzen duelarik egoera bakoitzak eskatzen duen hizkuntza.

Hizkuntzen trataera integralean, irakasle guztiak –hizkuntzetakoek direnek nahiz ez direnek– elkarrekin aritu behar dute komunikaziorako kompetentzia garatzen. Horretarako lagungarriak dira arlo edo ikasgai bakoitzeko jakintzen adierazpide bereziak eta hizkuntza bakoitzeko egoera eta esperientzia guztiak.

2.– Bi hizkuntza ofizialetan eta gutxienez atzerriko batean kompetentzia eleaniztuna lortzeko –hizkuntzen curriculum integratu eta integral baten bidez–, honako printzipio hauek beteko dira:

- a) Hizkuntzak irakasteak inklusioa izan behar du oinarrian; hau da, ikasle guztiak izan behar dute gai, ama-hizkuntza edozein dutela ere, eleaniztasunerako kompetentzia bere osotasunean garatzeko.
- b) Hizkuntzak irakasteak erabilera izan behar du oinarrian, hizkuntzak erabilera sozial eta akademikoaren bidez ikasten baitira eta komunikatzeko beharrian pragmatikoei bideratzen eta errazten baitute kodeaz jabetzea. Printzipio horren ildoan, hizkuntza eta edukiak integratzea da zentzuzkoena.
- c) Hizkuntzak irakasteak komunikazioa izan behar du oinarrian; hau da, hizkuntza bakoitzeko egoera pertsonal, sozial eta akademiko adierazgarriak hautatu behar dira, eta ikasgela komunikazio-gune pribilegiatu bihurtu, ikasleek denetariko komunikazio-jardueretan parte hartzeko, eraginkortasunez.
- d) Hizkuntzak irakasteak hizkuntzekiko eta hiztunekiko jarrera ona garatzea izan behar du oinarrian, kontuan hartuz hizkuntza